

2007ko Industria- ekobarometroa



garapen iraunkorra
DESARROLLO SOSTENIBLE

Euskal enpresen ingurumen-jarrera eta -konpromiso

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila
69.zk. 2008ko urtarrila



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

Ingurumeneko Esparru Programa Saila bildumako tituluak www.ingurumena.net helbide elektronikoan ikus ditzakezu.

- **35.zk. 2004ko uztaila.** "Hondakin arriskutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari"
- **36.zk. 2004ko iraila.** "Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkorraren udal-planak egiteko gida praktikoa"
- **37.zk. 2004ko iraila.** "Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumenekarpena (2004- 2006)"
- **38.zk. 2004ko urria.** "Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua"
- **39.zk. 2004ko otsaila.** "Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak"
- **40.zk. 2004ko otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Ingurumen Adierazleak"
- **41.zk. 2004ko azaroa.** "2003ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentario"
- **42.zk. 2004ko abendua.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Plan eta Programen Ingurumeninaktuaren Ebaluazio Bateratua Aplikatzeko Gida"
- **43.zk. 2005ko urtarrila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa"
- **44.zk. 2005ko apirila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren kanpo-kostuak. MUGIKOST'05"
- **45.zk. 2005ko ekaina.** "Gazteak aldatetaren alde. Kontsumo iraunkorrerako hezkuntzako esku-liburua"
- **46.zk. 2005ko apirila.** "Beira-, Zeramika- eta Karesektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten ingurumenekarpena (2005-2006)"
- **47.zk. 2005ko maiatza.** "Laburpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Egoera 2004"
- **48.zk. 2005ko apirila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruan eta biomasan dagoen karbono organikoaren inbentarioa"
- **49.zk. 2005ko apirila.** "Aalborgeko konpromisoak. Euskal udalerriek Europako iraunkortasunari egindako ekarpena"
- **50.zk. 2005ko maiatza.** "50 Ingurumen Jardunbide Egoki, Udalerriak Eredu"
- **51.zk. 2005ko maiatza.** "Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan (Ekinean mugikortasun iraunkorraren bidean)"
- **52.zk. 2005ko uztaila.** "2004ko Industria Ekobarometroa"
- **53.zk. 2005ko iraila.** "Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 2004"
- **54.zk. 2005ko urria.** "Gainazalak Tratatze Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumenekarpena (2005-2006)"
- **55.zk. 2005ko azaroa.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2005ko Ingurumen-Adierazleak"
- **56.zk. 2006ko apirila.** "Nekazaritza eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan 2006ko Adierazleak"
- **57.zk. 2006ko maiatza.** "IPPC Zuzentarauaren Eraginpean dauden Instalazioetan Ingurumen-baimen Integratua Eskatzeko gida"
- **58.zk. 2006ko uztaila.** "Europako Batasuneko Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako jardunbide Egokiei buruzko Eskuliburua"
- **59.zk. 2006ko uztaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen inbentario bateratua. 2003"
- **60.zk. 2006ko urria.** "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en Ekintza Planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa"
- **61.zk. 2006ko azaroa.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Aeronautikaren eta Espazioaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egindako ingurumen-ekarpena (2006-2008)"
- **62.zk. 2006ko abendua.** "Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2005"
- **63.zk. 2007ko otsaila.** "Gida metodologikoa Iraunkortasunaren Alderdi Soziala. Nola indartu Tokiko Agenda 21en alderdi soziala?"
- **64.zk. 2007ko martxoa.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2006ko Ingurumen-adierazleak"
- **65.zk. 2007ko uztaila.** "Natur ingurunean Udalek dituzten Eskumenen gida"
- **66.zk. 2007ko apirila.** "Osasuna eta Ingurumena. Euskal Autonomia Erkidegoan. 2007ko adierazleak"
- **67.zk. 2007ko abendua.** "Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2006"
- **68.zk. 2008ko urtarrila.** "Tokiko Agenda 21 Landa Eremuko Udalerrietan"
- **69.zk. 2008ko urtarrila.** "2007ko Industria Ekobarometroa"

© IHOBE, S.A. - 2008

ARGITARATZAILEA: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa – IHOBE, S.A.

EDUKIAK ETA ERREDAKZIOA: Miren Askasibar Bereziartua (Paisaia, S.L.)


DISEINUA: Dual^{id} – Comunicación & Diseño

ITZULPENA: Elhuyar Fundazioa

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitarteko a edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.



Aurkibidea

1.- SARRERA	2
2.- ENPRESEK INGURUMENARI BURUZ DITUZTEN JARRERAK ETA ESTRATEGIAK	4
2.1.- Ingurumenaren posizionamendua Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresen errentagarritasunerako lehentasunen artean	4
2.2.- Enpresek eragiten duten ingurumen-inpaktuari buruz duten pertzepzioa	5
2.3.- Ingurumen-inpaktua murrizteak eragiten duen onura ekonomikoaren balorazioa	6
3.- INGURUMEN-LEGERIAREN EZAGUTZA ETA ONDORIOAK	8
3.1. - Ingurumen-legeriaren ezagutza-maila	8
3.2.- Ingurumen-legeriaren betetze-mailari buruzko pertzepzioa	9
3.3.- Ingurumen-jarduera zenbateraino mugatzen den legeria betetzera	10
3.4.- Legeriak ingurumen-jardueraren indar eragile gisa duen garrantzia	11
3.5.- Ingurumen-jardueren kostuei buruzko pertzepzioa jarduera horiek gauzatzeko galga gisa	13
4.- ENPRESEN INGURUMEN-ARAZOAK	14
4.1.- Ingurumen-inkaktu nagusiei buruzko autopertzepzioak	14
5.- ENPRESEN INGURUMEN-KONPROMISOA	16
5.1.- Enpresen egoera ingurumen-ziurtagiriak direla-eta	16
5.2.- Ingurumen-ziurtagiri bat izateak dakartzan onuren pertzepzioa	17
6.- INGURUMEN-HOBEKUNTZARAKO JARDUERAK	19
6.1.- Enpresak ingurumena hobetzeko aldaketak egiten hastea	19
6.2.- Lortutako ingurumen-hobekuntzak	20
6.3.- Aldaketa eragiten duten faktoreak	21
7.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA EZAGUTZA	23
7.1.- Ingurumenari buruzko “jardunbide onenen” eta teknologien ezagutza	23
7.2.- Ingurumen-orientabidearen eragile nagusiak	24
7.3.- IHOBE-ren ezagutza	24
7.4.- IHOBE-k enpresaren hobekuntzan egiten duen ekarpenari buruzko balorazioa	25
8.- ONDORIOAK	28

1. Sarrera

Industria Ekobarometroa egitea beharrezkoa da ingurumen-kudeaketaren arloko ardurak dituzten eragileek informazio-oinarri objektibo eta fidagarria izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sareak ingurumenari buruz dituen iritzi, jarrera eta portaerei buruz. Hartara, industria horien egoera balora daiteke, eta tresna egokiak sor daitezke pixkanaka-pixkanaka ingurumenaren aldagaia integratuko duen enpresa-portaera sustatzeko erabakiak hartzeko.

*"Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020). Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenari buruzko Esparru Programa (2002-2006)"*ren barruan dago Industria Ekobarometroa. Estrategia horretan, aldian-aldian Industria Ekobarometroa eta Ekobarometro Soziala egiteko berariazko konpromisoa zehazten da.

Bestalde, *"2001eko diagnostikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena"* dokumentua eta Ekobarometro Sozialetan aztertutako euskal gizartearen pertzepzioa kontuan hartuta, industria-sektorea da ingurumenaren arloko eragilerik garrantzitsuenetako bat, garraio-sektorearekin eta kontsumitzaileen jarrerarekin batera. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritza eta industria-sektorea elkarlanean hasi dira, batetik, hobetzeko helburuak zehazteko eta, bestetik, helburu horiek lortzeko behar diren laguntza publiko eta pribatuko tresnak finkatzeko.

2007ko Industria Ekobarometroa SIADECO Ikerketa Aplikatua enpresak egin du. Horretarako, aurreko urteetan egindako Ekobarometro-ereduan oinarritu da, baina,aldi berean, Ekobarometroaren funtzionalitatea eguneratzeko eta hobetzeko behar diren doikuntza metodologikoak egin ditu.

Ondorengo taula honetan, egindako lanari buruzko fitxa teknikoaren ezaugarriak azaltzen dira:

UNIBERTSOA	Euskal Autonomia Erkidegoan 10 langiletik gorako 4.517 industria-enpresa baino gehiago daude, CIVEXen (Euskal Autonomia Erkidegoko Industrien eta Esportatzaileen Katalogoa) arabera.
LAGIN GLOBALAREN TAMAINA	564 industria-enpresa. Enpresa horiek 7 azpilaginetan banatu dira, industria-jardueraren sektore hauek ordezkatzen dituztenak: kimikoa, metalurgia, elikadura, elektrikoa, makinak eta ekipamenduak, produktu metalikoak eta beste industria-sektoreak.
INKESTAK EGITEKO TEKNIKA	Telefono bidezko elkarrizketa pertsonala (galdera-sorta) lagin adierazgarriko enpresetako ordezkarietara.
LAGINKETA-MOTA	Laginketa estratifikatua, sektoreen esleipen ez-proporzionalekoa ¹ , industria-sektore bakoitzean antzeko errore-marjina estatistikoa bermatzeko. Datu globalak lortzeko, industria-sektore bakoitzari dagozkion haztapen-indizeak aplikatu zaizkio, sektoreak aztertutako unibertsoaren barruan duten pisuaren arabera orekatzeko. Horrez gain, IPPC enpresen azpilaginaren datuak ere haztatu dira, kontuan hartutako industria-sektoreetan IPPC enpresen unibertsoak duen banaketa errealearen arabera, elkarrizketatutako enpresa bakoitzak sektorean duen pisua orekatzeko.
LANDA-AZTERKETAREN DENBORALDIA	2006ko urriaren 25etik azaroaren 21era.
ERRORE-MARJINA ESTATISTIKOA	% 95,5eko konfiantza-tartearekin, eta kondizio txarrenak kontuan hartzen dituen ausazko laginketa bakuna egin dela aurreuposatuz (alegia, % $p=q=0,5$ izanik), hauek dira errore-marjina estatistikoak: <ul style="list-style-type: none">• % ± 4 lagin globaleko datuen kasuan.• % $+10$ industria-sektore bakoitzari buruzko datuen kasuan.

1. taula: Fitxa teknikoa.

¹ Joera interesatu bat sartu delako laginaren diseinuan.

Ondorengo taulan, aztertutako unibertsoaren eta diseinatutako laginaren banaketa errealari buruzko datuak ematen dira sektoreka banatuta.

SEKTOREA	2007KO UNIBERTSOA		2007KO LAGINA		ERRORE-MARJINAK ²
	Abs.	%	Abs.	%	
Kimikoa	121	2.7	58	10.3	% ± 10
Elikadura	241	5.3	71	12.6	% ± 10
Metalurgia - 1. eraldaketa	232	5.1	75	13.3	% ± 10
Produktu metalikoak	1.323	29.3	95	16.8	% ± 10
Makinak eta ekipamenduak	831	18.4	90	16.0	% ± 10
Elektrikoa	368	8.2	79	14.0	% ± 10
Beste industria-enpresa batzuk	1.401	31.0	96	17.0	% ± 10
GUZTIRA	4.517	100.0	564	100.0	% ± 4

2. taula: Industria-enpresen unibertsoaren eta laginaren banaketa sektoreka eta errore-marjinen kalkulua.

Datuen azterketa eta irakurketa laginaren diseinu horretan oinarritzen da. Hala, aurreko urteetako Industria Ekobarometroetan aplikatutako irizpidea betez, datuen adierazgarritasun estatistikoa bermatu da, enpresen multzo guztia kontuan hartuta zein industria-sektore bakoitza eta IPPC araudiaren³ eraginpean dauden enpresak kontuan hartuta.

Datuak aztertzeko, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresek eta, bereziki, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresek 2007an ingurumenari buruz zuten pertzepzio globalari eta sektorialari buruzko datu esanguratsuak eta interpretazioak ematen dira.
- Dagoeneko zenbait Industria Ekobarometro egin direnez, orain arteko eboluzioaren ikuspegi orokorra ematen da. 2007ko datuak 2002ko datuekin alderatu dira, joerak denbora-ikuspegi handiagoarekin (epe ertainera) aztertzeko.
- Kasu batzuetan ez da eboluzioaren ikuspegiarik ematen, galdera berriekin lortutako datuak erabili direlako edo Industria Ekobarometro honetan barneratutako aldaketa metodologikoez ez dutelako aukerarik ematen aurreko urteetako datuekin konparaketa zuzenak egiteko.
- Interpretazioa egitean, beste aldagai batzuekin lotutako datuak ere kontuan hartzen dira: enpresaren tamaina langile-kopuruaren arabera, ingurumen-ziurtagiria izatea edo ez izatea, lurralde historikoa, erantzuten duenak enpresako ingurumen-kudeaketako berariazko karguren bat izatea edo ez izatea⁴...

² Adierazi dugun moduan, inkesten adierazgarritasun orokorra bermatzeko eta datuak oro har aztertu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsoa sektore bakoitzaren benetako pisuaren arabera haztatu dira.

³ Poluzio handia eragin dezaketelako poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuaren inguruko araudiak eragiten dien enpresek osatzen dute talde hori; araudi horrek IPPC izenez ezaguna den Europako Direktiba (*Integrated Pollution Prevention and Control*) ekarri du.

⁴ Aldagai horiek guztiak kontuan izan dira datuen ustiaketa estatistikoa egitean. Hala ere, laginaren diseinuak ez duenez kontuan hartu aldagai horien arabera datuen adierazgarritasuna, interpretatzeko irizpide interesgarri esanguratsuak gehitzen dituen baina ez da erantsi informazio edo iruzkinik.


2. Enpresek ingurumenari buruz dituzten jarrerak eta estrategiak

2.1. INGURUMENAREN POSIZIONAMENDUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INDUSTRIA-ENPRESEN ERRENTAGARRITASUNERAKO LEHENTASUNEN ARTEAN

Ingurumenaren faktorea errentagarritasun ekonomiko handiagoa lortzeko lehentasun gisa hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresen segmentua gutxiengoa da: zehazki, galdetako enpresen % 5ek berehala aipatzen dute faktore hori enpresa-errentagarritasuna lortzeko lehengo 3 lehentasunen artean. Ingurumenak enpresa-errentagarritasunean duen posizionamendu hori ez da aldatu azken urteetan, eta beheranzko joera txikia nabaritzen da (% 5 eta % 8 artekoak dira ehunekoak).

Hala, enpresen arabera, hauek dira beren errentagarritasuna gehien baldintzatzen duten 3 faktoreak: produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea, ondo saltzea/lana izatea eta produktibitatea (% 27 eta % 39 artean). Faktore horiek garrantzi handiagoa dute orain 2002an baino. Bestalde, enpresen % 22-23k beste faktore batzuk aipatzen dituzte (adibidez, lehengaien kostua eta giza faktorea). Faktore horien inpaktuari buruzko pertzepzioa ere handiagoa da 2002an baino.

“ Oraindik ere gutxiengoa dira (% 5) enpresa-errentagarritasunerako 3 funtsezko aldagaien artean ingurumena aipatzen duten industria-enpresak ”




1. grafikoa: Enpresa-errentagarritasunareko gehien baloratzen diren alderdiak (%).

Industria-sektoreak banaka aztertuta, ikusten da sektoretik sektorera desberdintasun handiak daukela ingurumenak enpresa-errentagarritasunean duen inpaktuaren pertzepzioan. Hala, industria kimikoaren sektoreak ematen dio garrantzi handiena ingurumenari (% 21); gainera, ehuneko hori handiagoa da 2002koa baino. Sektore horren ondoren, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresek ematen diote garrantzia ingurumenari (% 17), ehuneko hori 2002koa baino txikiagoa izan arren.



Bestalde, metalurgiaren eta elikaduraren sektoreak ingurumenari ematen dion garrantziaren ehunekoa murriztu egin da (% 7 eta % 3 hurrenez hurren). Agian, sektore horiek jarduten duten ingurune ekonomiko eta sozialean izandako aldaketek eragin dute murrizketa hori. Hala, sektore horietan garrantzi handiagoa ematen zaie lehen aipatutako aldagaiei, ingurumen-aldagaien kaltetan. Gainerako sektoreen kasuan, aldaketa gutxi daude 2002ko egoerarekin alderatuta.

Azkenik, ingurumen-ziurtagiriren bat duten enpresak dira ingurumenari enpresa-errentagarritasunerako faktore gisa garrantzi handiena ematen diotenak, eta, horrez gain, enpresako ingurumenaren arloko karguren bat duen pertsonak erantzuten duenean ematen zaio garrantzi handiena ingurumenaren faktoreari.



2. grafikoa: Ingurumena errentagarritasunerako lehenetasunezko faktoretzat duten enpresak, industria-sektoreka (%).

2.2. ENPRESEK ERAGITEN DUTEN INGURUMEN-INKAPTUARI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA

Datuen arabera, galdetutako enpresa gehienek (ia hamarretik sei) uste dute beren jarduerak inpaktu handia eragiten duela ingurumenean.

Datu globalen eboluzioa kontuan hartuta, 2000-2004 epealdian ingurumen-inpaktua eragiten zutela aitortzen zuten enpresen ehunekoa handitu ondoren, 2006an, indize hori egonkortu egin da, eta 2002koen antzeko balioetara itzuli gara.


“ 10 industria-enpresatik 6k aitortzen dute ingurumen-inpakturen bat eragiten dutela ”

Alde batetik, datu horiek erakusten dute enpresa asko sentsibilizatuta daudela sortzen duten ingurumen-inpaktuaren gainean, baina, beste alde batetik, adierazten dute oraindik ere Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sarean sentsibilizazio-lan handia dagoela egiteko, jarrerak barnertzeko eta ingurumenaren arloan enpresa-portaera arduratsuagoak eta zuzenagoak hartzeko.

Hauek dira ingurumen-inpaktu handiena eragitearen pertzepzioa duten sektoreak: metalurgikoa (% 73) eta kimikoa (% 71). Elikaduraren eta produktu metalikoen sektoreak, berriz, adierazten dute ingurumen-inpakturik txikienaren pertzepzioa (% 54 eta % 57 hurrenez hurren).

Bestalde, azpimarratu behar da IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen % 83 direla kontziente sortzen duten ingurumen-inpaktuari buruz.

Sektoreka izandako eboluzioari dagokionez, oro har, hazkunde txikia izan da sortzen duten ingurumen-inpaktuaz kontziente diren enpresen ehunekoetan, sektore kimikoaren kasuan izan ezik. Kasu horretan, behera egin du ehunekoak, eta elikadura-sektorearen kasuan, are beherakada handiagoa izan da. IPPC enpresetan, % 85 inguruko ehuneko handiak egonkortzeko joera nabaritzen da.



3. grafikoa: Ingurumenean inpaktua sortzen dutela uste duten enpresak, industria-sektoreka (%).


Horrez gain, enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, sortutako ingurumen-inpaktuaren pertzepzioa ere handiagoa dela adierazten dute datuek. Sortutako ingurumen-inpaktuaz kontziente diren enpresen ehunekoa ere handiagoa da inpaktu-ahalmena –IHOBEn sailkapenaren arabera– handitzen den heinean. Halaber, ingurumen-ziurtagiria duten enpresak kontzienteago dira sortzen duten inpaktuaz ziurtagiririk ez dutenak baino.

2.3. INGURUMEN-INKAPTUA MURRIZTEAK ERAGITEN DUEN ONURA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

Datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen % 31k uste dute ingurumen-inpaktua murrizteak onura ekonomiko handiak ekar diezazkiokeela enpresaren jarduerari.

“ Gero eta enpresa gehiagok (% 31) aitortzen dute ingurumen-inpaktua murrizteak onura ekonomikoak dakarziela ”

Oraindik ere, inpaktuaren murrizketa errentagarritasun ekonomikoarekin lotzen ez duten enpresen pisu erlatiboa handiagoa da bi kontzeptu horiek lotzen dituztenena baino. Hala eta guztiz ere, azterketa ebolutiboak adierazten duenez, 2006an aldatu egin da 2000-2004 epealdiko joera, eta, lehen aldiz, hazi egin da ingurumen-inpaktua murrizteak ekar ditzakeen eragin ekonomiko positiboek erakartako enpresen ehunekoa.



Sektorez sektore aztertuta, makina eta ekipamenduen arloko enpresek lotzen dituzte gehien inpaktuaren murrizketa eta onura ekonomikoak (% 35, batezbesteko orokorra baino gehiago). Sektore kimikoa, produktu metalikoen sektorea eta sektore elektrikoa batezbestekoaren mailan daude (% 30-31). Ehuneko txikiena, berriz, sektore metalurgikoak eta elikadura-sektoreak dute (% 24 bi kasuetan).


IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen artean, ia erdiak lotzen ditu ingurumen-inpaktuaren murrizketa eta onura ekonomikoak.

Bestalde, orain arteko bilakaeraren ikuspegitik, 2002-2007 epealdian, sektore guztietan nolabaiteko hazkundea izan da ingurumen-inpaktua murrizteak onura ekonomikoak ekar ditzakeela uste duten enpresen ehunekoetan. Hazkunde hori bereziki nabarmena izan da makina eta ekipamenduen sektorean (ehunekoetan 15 puntu hazi da). Sektore elektrikoaren, produktu metalikoen sektorearen eta elikadura-sektorearen kasuan, berriz, oso hazkunde txikia izan da.

Hazteko joera horren salbuespen gisa, sektore metalurgikoan, 10 puntu murriztu da inpaktu-murrizketaren eta onura ekonomikoaren loturaren ehunekoak.

Bestalde, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen kasuan, hazkunde nabarmena izan da: 13 puntu hazi da ehuneko hori, alegia, ingurumen-inpaktua murriztuz errentagarritasun ekonomikoa lor dezaketela uste duten enpresen ehunekoak.

Hala ere, ingurumen-ziurtagiria duten enpresen kasuan eta enpresako ingurumenaren arloko karguren bat duen pertsonak erantzuten duenean hazten da gehien inpaktu-murrizketak onura ekonomikoak ekar ditzakeenaren pertzepzioa.



4. grafikoa: Ingurumen-inpaktua murrizteak irabazi ekonomiko handiak ekar ditzakeela uste duten enpresak, industria-sektoreka (%).

3. Ingurumen-legeriak ezagutza eta ondorioak

3.1. INGURUMEN-LEGERIAREN EZAGUTZA-MAILA

Galdetutako enpresen % 56k diote argi dutela ingurumen-araudiak nola eragiten dien.

2000 eta 2004 arteko joerak adierazten du hazten ari dela legeria ezagutzen dutela dioten enpresen ehunekoa. 2007an, ordea, pixka bat murriztu egin da ehuneko hori. Hala, egonkortu egin da egoera, eta 2002-2004ko balioen bitarteko mailara iritsi da.

Edozein modutan, gehiago dira eragiten dien legeria oso ondo ezagutzen dutela dioten enpresak (% 26tik % 33ra). Beraz, ingurumen-legeria sakon ezagutzen duten enpresen kopurua hazi egin da.

“ Ingurumen-inpaktu handiena eragiten duten sektoreetan (industria kimikoa, metalurgikoa eta metalezko produktuena) dago ingurumen-legeria ezagutzen dutela dioten enpresen batez bestekorik handiena (% 60, edo gehiago) ”

Sektoreka aztertuta, batez ere, enpresa kimikoen adierazten dute eragiten dien legeria ezagutzen dutela (% 81) Sektore metalurgikoa eta produktu metalikoen sektorea ere batez besteko globalaren gainetik daude (% 60 edo gehiago).


Azkenik, sektore elektrikoak (% 47) eta, batez ere, elikadura-sektoreak eta makina eta ekipamenduen sektoreak (% 40 inguru) adierazten dute ingurumen-legeriaren ezagutza txikiena, eta batezbesteko orokorretik behera daude.

IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen kasuan, ingurumen-legeria ezagutzen dutela dioten enpresen ehunekoa batezbesteko globalaren gainetik dago nabarmen (% 78).

Sektorez sektore 2002az geroztik izandako bilakaera aztertuta, ikusten da sektore kimikoan eta metalurgikoan –eta neurri txikiagoan produktu metalikoen sektorean– hazi direla gehien ingurumen-legeria ezagutzen dutela dioten enpresen ehunekoak.

Gainerako sektoreen kasuan, batez ere, makina eta ekipamenduen sektorean eta elikadura-sektorean izan da ehunekoaren murrizketarik handiena. IPPC arauaren eraginpean dauden enpresen kasuan ere, hazi egin da ingurumen-legeria ezagutzen duten enpresen ehunekoa.

Enpresaren tamaina eta inpaktu-ahalmena –IHOBEn sailkapenaren arabera– zenbat eta handiagoa izan, are handiagoa da ingurumen-legeriaren ezagutza. Halaber, ingurumen-ziurtagiria duten enpresen kasuan, enpresako ingurumenaren arloko karguren bat duen pertsonak erantzuten duenean eta Bizkaian kokatutako enpresetan ezagutza handiagoa dela nabaritzen da.




5. grafikoa: Ingurumen-legeriak nola eragiten dien ondo dakitela dioten enpresak, industria-sektoreka (%).

3.2. INGURUMEN-LEGERIAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek uste dute gutxiengoak betetzen duela ingurumen-legeria, eta gutxi dira enpresa gehienek legeria betetzen dutela uste dutenak: % 34k uste du bere sektorean ingurumen-legeria betetzen duten enpresen ehunekoak % 40tik beherakoa dela, eta % 22k uste du % 60k edo gehiagok legeria betetzen dutela.

Nabarmentzekoa da galdetutako enpresen ia herenak ez duela ezagutzen bere sektoreko enpresek legeriaren zer betetze-maila duten.



6. grafikoa: Zure ustez, zure sektoreko zenbat enpresek betetzen dute indarrean dagoen legeria guztia? (%).

“ Ingurumen-araudia enpresa gutxik betetzen dutela (% 40k edo gutxiagok) uste dutenak gehiago dira enpresa gehienek (% 60k edo gehiagok) legeria betetzen dutela uste dutenak baino ”

Enpresen gutxiengoak (enpresen % 40k baino gutxiagok) legeria betetzen duenaren pertzepzioa beziki nabarmentzekoa da sektore metalurgikoan (% 39). Ehuneko hori pixka bat txikiagoa da produktu metalikoen sektorean (% 34). Sektore kimikoan eta makina eta ekipamenduen sektorean, berriz, % 29k uste du hori.

Sektore elektrikoan eta elikadura-sektorean, enpresen gehiengoak legeria betetzen duenaren pertzepzioa (% 29 eta % 24 hurrenez hurren) handiagoa da gutxiengoak betetzen duenaren pertzepzioa baino (% 27 eta % 18 hurrenez hurren).

IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresei dagokienez, gehiengoak legeria betetzen duela uste dutenen ehunekoa eta gutxiengoak betetzen duela uste dutenena berdina da: % 30 bi kasuetan. Enpresen % 32k ez du datu hori ezagutzen.

Bizkaian errotutako enpresetan, ingurumen-ziurtagiriren bat duten enpresetan, IHOBEn sailkapenaren arabera inpaktu txikia eragiten duten enpresetan eta enpresako ingurumenaren arloko karguren bat duen pertsonak erantzuten duenean, enpresen gutxiengoak ingurumen-legeria betetzen duenaren pertzepzioa batezbesteko orokorra baino handiagoa da.

Legeria betetzen duten enpresen %-ren balorazioa	Kimikoa	Elikadura	Metalurgia	Produktu metalikoak	Makinak eta ekipamenduak	Elektrikoa	IPPC enpresak
% 0 - % 40	29	18	39	34	29	27	30
% 41 - % 60	21	24	9	14	18	15	8
% 61 - % 100	21	24	24	18	22	29	30
Ed/Ede	29	34	28	34	31	29	32
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

3. taula: Zure ustez, zure sektoreko zenbat enpresek betetzen dute indarrean dagoen ingurumen-legeria guztia? (% industria-sektoreko).

3.3. INGURUMEN-JARDUERA ZENBATERAINO MUGATZEN DEN LEGERIA BETETZERA

Galdetutako 10 enpresetatik 7k diote, ingurumen-inpaktua murrizteko ekintzak egiten dituztela ez soilik legeria betetzeagatik, baizik baita enpresaren beraren interesagatik ere. Alegia, enpresa horiek ez dituzte ingurumen-jarduerak egiten legea betetzeko behar hutsagatik; enpresaren interesek motibatuta egiten dute, eta horrek adierazten du ingurumena enpresa-portaeraren aldagai gisa barneratu dutela.


“ 10 enpresatik 7k diote ingurumen-inpaktua murrizteko neurriak ez dituztela hartzen legeria betetzeagatik bakarrik ”

Datu globalen bilakaeraren arabera, legea betetzeko behar hutsaz haratago beste motibazio batzuekin ingurumen-jarduerak egiten dituzten enpresen kopuruak goranzko joera hartu du azken urteetan. Orain egonkortzen ari da kopuru hori (% 70 inguru), eta 2004koaren antzeko egoerara itzuli gara.

Sektoreka aztertuta, batez ere, sektore metalurgikoak eta, neurri txikiagoan, sektore kimikoak jarduten dute legea betetzeak bakarrik bultzatuta (% 83 eta % 76 hurrenez hurren). Halaber, batezbesteko globalaren gainera daude makina eta ekipamenduen sektorea, sektore elektrikoa eta beste industria-sektore batzuetako enpresak. Produktu metalikoen enpresak eta elikadura-enpresak, berriz, batezbestekoaren azpitik daude (% 63 eta % 65). Bestalde, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresek % 83ko ehunekoa dute. Horrek adierazten du gehienek ingurumen-aldagaia barneratu dutela ekoizpen-jardueran.

2002ko egoera gaur egungoarekin alderatuta, ikusten da legea betetzeak motibatuta bakarrik jarduten ez duten enpresen ehunekoa hazi egin dela, batez ere, sektore metalurgikoan eta kimikoan, eta gutxiago sektore elektrikoa eta makina eta ekipamenduen sektorean. Aitzitik, ehuneko hori murriztu egin da elikadura-sektorean eta produktu metalikoen sektorean. IPPC arauaren eraginpean dauden enpresen kasuan ere, hazi egin da ingurumen-aldagai barneratu duten enpresen ehunekoa.

Azkenik, ingurumen-jarduerak legeria betetzeko bakarrik egiten ez dituzten enpresen ehunekoa handiagoa da 50 langiletik gorako enpresetan, ingurumen-ziurtagiria dutenetan eta enpresako ingurumenaren arloko karguren bat duen pertsonak erantzun duen kasuetan.




7. grafikoa: Ingurumen-neurriak legeria betetzeko bakarrik hartzen ez dituzten enpresak, industria-sektoreka (%).

3.4. LEGERIAK INGURUMEN-JARDUERAREN INDAR ERAGILE GISA DUEN GARRANTZIA

Industria-enpresen % 22ren ustez, legeria funtsezkoa izan da azken 2 urteetan enpresetan martxan jarritako ingurumen-hobekuntzetarako. Beraz, horien ustez, indar eragile oso garrantzitsua da enpresetan ingurumen-hobekuntzak martxan jartzeko.

Sektorez sektore, ikusten da ingurumen-legeriak garrantzi handia izan duela inpaktu-ahalmen handiena duten enpresetan. Hala, sektore kimikoko eta metalurgikoko enpresen % 35en arabera, legeriaren faktorea oinarrizkoa izan da martxan jarritako hobekuntzak bultzatzeko. Makina eta ekipamenduen sektorean ere ehuneko hori batezbesteko globala baino handiagoa da (% 28). Enpresa elektrikoen ehunekoa, berriz, batezbestekoaren berdina da. Bestalde, produktu metalikoen sektorean eta elikadura-sektorean izan du legeriak eragin txikiena aldaketak egiteko orduan (% 20 baino pixka bat gutxiago).



8. grafikoa: Legeria egindako ingurumen-hobekuntzen indar eragiletzat duten enpresak, industria-sektoreka (%).

IPPC araudiaren eraginpean daude enpresen kasuan –alegia, ingurumen-inpaktu handiena sortzeko ahalmena duten enpresen kasuan– pisu handia du faktore horrek (% 34), eta horrek erakusten du ingurumen-legeria oinarritzko faktoreetako bat dela enpresetan ingurumen-hobekuntzarako neurriak martxan jartzeko.




3.5. INGURUMEN-JARDUEREN KOSTUEI BURUZKO PERTZEPZIOA JARDUERA HORIEK GAUZATZEKO GALGA GISA

Enpresen % 42k adierazi duenez, finantza-mugek ez diete uzten ingurumen-portaera hobetzeko lan gehiago egiten.

Orain arte izandako bilakaera aztertuta, ikusten da eten egin dela ingurumen-jardueren kostua jardue-
ra horiek martxan jartzeko galga gisa ikusten duten enpresen pisu erlatiboak hartua zuen goranzko
joera, eta 2002 eta 2004 arteko batezbesteko balioetan dago gaur egungo ehunekoa.

Ingurumen-jardueren kostua jarduera horiek gauzatzeko galga direnaren pertzepzioa batezbestekoa
baino handiagoa da produktu metalikoen sektorean, sektore metalurgikoan eta kimikoan (% 43 eta
% 48 artean). Agian, sektore horietako jarduerak ingurumen-inpaktu handiago eragiten duenez, ba-
liabide gehiago behar dituzte inpaktu hori murrizteko jarduerak martxan jartzeko, eta horregatik dute
pertzepzio hori. Pertzepzio hori txikiagoa da makina eta ekipamenduen sektorean, elikadura-sekto-
rean eta sektore elektrikoan (% 38 eta % 39 artean). Bestalde, IPPC araudiaren eraginpean dauden
enpresen kasuan, ehunekoa % 36 ingurukoa da, batezbesteko orokorra baino 6 puntu gutxiago.

Orain arte izandako bilakaera sektorez sektore aztertuta, ikusten da produktu metalikoen sektorean
hazi dela gehien finantza-kostuei ingurumen-hobekuntzak martxan jartzeko galga gisa emandako ga-
rrantzia, eta gutxiago sektore metalurgikoan, makina eta ekipamenduen sektorean eta sektore ele-
ktrikoan. Sektore kimikoan eta, batez ere, elikadura-sektorean, berriz, murriztu egin da faktore horri
emandako garrantzia. IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen kasuan, murriztu egin da finan-
tza-mugek ingurumen-portaera hobetzea galarazten dietela uste duten enpresen ehunekoa.



9. grafikoa: Finantza-mugek ingurumen-portaera hobetzea oztopatzen dietela uste duten enpresak, industria-sektoreka (%).

4. enpresen ingurumen-arazoak


4.1. INGURUMEN-INKAKTU NAGUSIEI BURUZKO AUTOPERTZEPZIOAK

Galdetutako enpresen % 46ren eta % 43ren arabera, hondakin ez-arriskutsuak⁵ eta hondakin arriskutsuak⁶ dira ingurumen-inkaktu nagusiak.

Horien ondoren aipatzen dituzte airera egindako emisioak⁷ (% 27), uretara egindako isurketak⁸ (% 15), zaratak (% 9), sortutako hondakinak eta ontziak (% 8) eta energiaren kontsumoa (% 6). Beste inkaktu batzuk –adibidez, lurzoru poluituak edo materialen kontsumoa– % 2k baino gutxiagok aipatzen dituzte. Beraz, horrek adierazten du, gaur egun, enpresek ez dituztela lehentasunezko ingurumen-inkaktu gisa hartzen.

“ Enpresek sortzen dituzten bi ingurumen-arazo nagusiak hondakin arriskutsuak (% 43) eta ez-arriskutsuak (% 46) dira. Azken horien garrantzia, bestalde, gero eta handiagoa da ”

Orain arte izandako bilakaeraren arabera, hondakin ez-arriskutsuen garrantziak goranzko joera izan du, eta, hala, enpresek adierazitako ingurumen-inkaktu nagusia da, hondakin arriskutsuen aurretik. Hondakin arriskutsuen goranzko joera geratu egin zen 2007an. Airera egindako emisioak aipatzen dituzten enpresen ehunekoak ere ez du gora egin, eta egonkortzeko joera agertzen du. Uretara egindako isurketek, bestalde, bilakaera fluktuatzailea erakusten dute, eta azken epealdian murriztu egin da horien ehunekoa.



10. grafikoa: Enpresek detektatutako ingurumen-arazo eta -alderdi nagusiak, industria-sektoreka (%).

⁵ Hondakin ez-arriskutsuak dira, besteak beste, txatarraren ekoizpena, papera, txirbilak eta hondakinak.

⁶ Hondakin arriskutsuak dira, besteak beste, olioak, taladrina-ekoizpena eta pinturak.

⁷ Airerako emisioetan sartzen dira, besteak beste, bernizak, disolbatzaileak, hautsa, usainak, partikulak eta NO_x-a.

⁸ Isurpen likidoen gainera, ur-kontsumoa ere barne hartzen da.

Sektoreka, berriz, desberdintasun handiak ikusten dira, bistanenez, sektore bakoitzak dituen berezitasunen eta sortzen dituen inpaktuen arabera. Dena den, oro har, sektore guztiak azpimarratzen dituzte hondakin arriskutsuek eta ez-arriskutsuek sortzen dituzten arazoak.


Hala, hondakin ez-arriskutsuak arazo nagusitzat hartzen dituzte sektore elektrikoak (% 65), metalurgikoak (% 52) eta elikadura-sektoreak (% 48). Bestalde, hondakin arriskutsuak arazo nagusitzat hartzen dituzte sektore kimikoak (% 65), makina eta ekipamenduen sektoreak (% 49) eta produktu metalikoen sektoreak (% 46).

Airera egindako emisioak aipatzen dituztenen kasuan, batezbesteko orokorraren gaineratik daude sektore kimikoa (% 45), metalurgikoa (% 44) eta produktu metalikoen sektorea (% 30). Uretara egindako isurketei dagokienez, batezbesteko globalaren gaineratik daude sektore hauek: kimikoa (% 31), elikadura-sektorea (% 30) eta metalurgikoa (% 19).

Bestalde, zarataren arazoa azpimarratzen dute sektore metalurgikoak eta produktu metalikoen sektoreak (% 19 eta % 15). Ontzi eta bilgarrien arazoa, berriz, batezbesteko globaletik gorakoa da sektore elektrikoan (% 20) eta sektore kimikoan (% 12). Energiaren kontsumoa aipatzen duten enpresen ehunekoa batezbesteko globala baino handiagoa da sektore kimikoan eta elikadura-sektorean (% 9 bi kasuetan), beste industria-jarduera batzuen kasuan (% 8) eta sektore metalurgikoan (% 7).

IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen kasuan, airera egindako emisioek garrantzi handia dute (% 73), eta, haien ondoren, hondakin arriskutsuek (% 60). Uretara egindako isurketak aipatzen dituztenen ehunekoa batezbesteko globala baino askoz ere handiagoa da (% 57).

Azkenik, 101 eta 500 langile arteko enpresetan, hondakin arriskutsuek eta airera egindako emisioek ingurumenean inpaktua eragiten dutela uste duten enpresen proportzioa batezbesteko orokorra baino handiagoa da (% 64 eta % 44 hurrenez hurren). 50 langile arteko enpresen kasuan, berriz, handiagoa da hondakin ez-arriskutsuek inpaktua eragiten dutela uste dutenen ehunekoa.




11. grafikoa: Industria-sektoreek ingurumen-arazo nagusiei buruz duten pertzepzioa, industria-sektoreka (%).

5. Enpresen ingurumen konpromisoa

5.1. ENPRESEN EGOERA INGURUMEN-ZIURTAGIRIAK DIRELA-ETA

Lau enpresatik ia batek dio ingurumen-ziurtagiriren bat duela (ISO 14001, Ekoscan edo EMAS). Orain arteko bilakaerak adierazten duenez, ingurumen-ziurtagiriren bat duten enpresen ehunekoa hazten ari da etengabe. Horrek adierazten du ingurumen-aldagaiak gero eta garrantzi handiagoa duela enpresa-kudeaketan. Bestalde, lehen aldiz, ziurtagiriren bat duen enpresen ehunekoa handiagoa da ziurtagiria lortzeko prozesuan dauden enpresena baino (% 5).



12. grafikoa: Ingurumen-ziurtagirien arloan proaktiboak diren enpresak, ziurtagiria dutenak eta ziurtagiria lortzeko prozesuan daudenak barne (%).

Sektoreka bakoitza banaka aztertuz gero, desberdintasun handiak daude arlo horretan. Adibidez, sektore kimikoa besteen artean nabarmentzen da, eta enpresen % 52k diote ingurumen-ziurtagiria dutela. Haren ondoren dago sektore metalurgikoa (% 36). Ziurtagiri gutxien dituen sektorea makina eta ekipamendua da, eta, haren ondoren, elikadura-sektorea, sektore elektrikoa eta produktu metalikoen sektorea (% 13 eta % 21 artean). IPPC enpresen taldeak du ingurumen-ziurtagiria duten enpresen ehuneko handiena (% 71).


“ Ingurumen-ziurtagiria duten enpresen kopuruak gora egin du azken urteotan; hala, gaur egun ia % 25k du arlo horretako ziurtagiriren bat ”

Egiaztatu ahal izan denez, ingurumen-inpaktua eragiteko ahalmen handiena duten industria-sektoreek bete dituzte gehien ingurumen-ziurtagiria lortzeko prozesuak.

Ziurtagiria lortzeko prozesuan dauden enpresen artean ere, sektore kimikokoak nabarmentzen dira (% 16). Bigarren mailan daude enpresa metalurgikoak, ondoren, makina eta ekipamenduen sektoreko enpresak eta, azkenik, produktu metalikoen sektorea eta sektore elektrikoa.

Arlo horretan izandako bilakaeraren ikuspegitik, sektore hauetan hazi da gehien ingurumen-ziurtagiria duten enpresen ehunekoa: sektore metalurgikoa, sektore kimikoa, produktu metalikoen sektorea eta elikadura-sektorea. Halaber, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresetan ere, ziurtagiria duten enpresen hazkunde handia izan da.

Bestalde, enpresaren tamaina enpleguaren funtzioan zenbat eta handiagoa izan, ingurumen-ziurtagiria duten enpresen ehunekoa ere handiagoa da. Hala, 10-50 langileko enpresen % 15ek du ingurumen-ziurtagiria, eta 50 langiletik gorakoetan, % 35ek baino gehiagok.




13. grafikoa: Ingurumen-ziurtagirien arloan proaktiboak diren enpresak, ziurtagiria dutenak eta ziurtagiria lortzeko prozesuan daudenak barne, industria-sektoreka (%).

5.2. INGURUMEN-ZIURTAGIRI BAT IZATEAK DAKARTZAN ONUREN PERTZEPZIOA

Ingurumen-ziurtagiria duten enpresen % 7ren ustez, hau da ziurtagiria izateak eragiten duen onura nagusia: legeria betetzea, eta horren ondoriozko segurtasun juridikoa. Bigarrenik, enpresen % 5ek diote, ingurumen-ziurtagiriaren bidez, batez ere, ingurumen-inpaktua murriztea lortzen dela. Azkenik, % 4ek beste abantaila batzuk aipatzen dituzte (adibidez, kostuak murriztea, barne-antolaketa hobetzea eta bezeroak mantentzea edo lortzea).


Abantaila horiekin lotuta, 3 ardatz estrategiko landu behar dira modu osagarrian eta integralean, enpresek ingurumenaren aldetik zuzenak diren jarrerak eta portaerak erdiesteko: esparru arauemai-lea, inpaktua murriztearen berezko balioaz kontzientzia hartzea eta ingurumen-inpaktua murrizteko neurrien errentagarritasuna.

Sektoreak banaka aztertuta, ziurtagiria izatearen abantaila nagusia inpaktua murriztea dela uste duten enpresa gehienak sektore kimikokoak dira (% 12, batezbesteko globala baino gehiago). Sektore elektrikoko enpresen ehunekoa, berriz, batezbestekoaren berdina da. Gainerako sektoreen ehunekoa % 3 eta % 4 artekoa da.



14. grafikoa: Ingurumen-ziurtagiria izatearen bi onura nagusiak (%).

Dirudenez, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen % 14ren iritziz, batez ere, inpaktu-ahalmen handiena duten enpresek eta legeria zorrotzeta bete behar dutenek uste dute inpaktua murriztea dela ingurumen-ziurtagiria izateak dakarren abantaila nagusia.



15. grafikoa: Ziurtagiria izatearen onura nagusia inpaktua murriztea dela uste duten enpresak, industria-sektoreka (%).

6. ingurumen-hobekuntzarako jarduerak


6.1. ENPRESAK INGURUMENA HOBETZEKO ALDAKETAK EGITEN HASTEAN

Galdetutako 10 enpresetatik ia 6k diote azken bi urteetan aldaketak egin dituztela ingurumen-portaera hobetzeko. Horien artean, sektore kimikoko eta metalurgikoko enpresak azpimarratu behar dira. Sektore horietako enpresen % 79k eta % 72k aldaketak egin dituzte. Horien ondoren, makina eta ekipamenduen sektoreko enpresek egin dituzte aldaketa gehienak (% 62). Beste arrazoi batzuen artean, ingurumen-araudiak enpresa-mota horietan duen eragina –inpaktu handiagoa eragiten dute– izan daiteke horren arrazoi nagusia. IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresetan ere nabaritzen da hori. Hala, gehienek (% 94) adierazi dute aldaketak egin dituztela ingurumen-egoera hobetzeko.

“Hamar industria-enpresetatik ia seik diote ingurumenari mesede egiten dioten aldaketak egin dituztela azken bi urteotan”

Berriki horrelako aldaketa gutxien egin dituzten sektoreak elikadura-sektorea (% 41) eta sektore elektrikoa (% 46) dira. Produktu metalikoen sektoreko enpresak, berriz, batezbesteko globalaren azpitik daude (% 53).

Bestalde, enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan enplegu-geruzaren ikuspegitik, horrelako aldaketak egin dituzten enpresen ehunekoa ere handiagoa da: 10-50 langileko enpresen % 50 inguruk egin dituzte aldaketak, eta langile-kopuru horretatik gorakoen % 65 baino gehiagok.




16. grafikoa: Azken bi urteetan ingurumen-hobekuntzak ekarri dituen aldaketaren bat egin duten enpresak (%).

6.2. LORTUTAKO INGURUMEN-HOBEKUNTZAK

Oro har, galdetutako lau enpresetatik batek adierazi du, azken bi urteetan, hobekuntzak egin dituztela hondakin arriskutsuak (olioak, taladrinak, pintura...) sortzearen arloan. Enpresen % 18k, berriz, diote hobekuntzak egin dituztela hondakin ez-arriskutsuen arloan (txatarra, papera, txirbilak...). Horien ondoren, airera egindako emisioetan eta uretara egindako isurketetan hobekuntzak egin dituzten enpresak azpimarratu behar dira (% 11 eta % 10 hurrenez hurren). Enpresen arabera, arlo hauetan egin dituzte hobekuntza txikienak: energia-kontsumoa, ontzi eta bilgarrien hondakinak eta zarata (% 3 eta % 5 artean).

“ Bi arlotan hobetu dira gehien industria arloko enpresen ingurumen-arazoak azken bi urteotan: hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen sorreran ”




17. grafikoa: Enpresen ustez, ingurumenaren ikuspegitik gehien hobetu dituzten arloak (%).

Hondakin arriskutsuei buruzko hobekuntzak egin dituzten enpresen artean, sektore hauek nabarmendu behar dira: lehenik, sektore kimikoa (% 45) eta, ondoren, makina eta ekipamenduen sektorea (% 36) eta sektore metalurgikoa (% 33). Salbuespen gisa, elikadura-sektorea aipatu behar da. Sektore horretako enpresa gehienek uretara egindako isurketen arloko hobekuntzak aipatu dituzte.

Hondakin ez-arriskutsuekin egindako hobekuntzen arloan, batezbesteko globala gainditzen dute sektore elektrikoak (% 23), makina eta ekipamenduen sektoreak (% 22) eta produktu metalikoen sektoreak (% 19). Airera egindako emisioen arloko hobekuntza gehienak sektore kimikoko enpresetan (% 31) eta sektore metalurgikoan (% 28) egin dira, eta gutxiago produktu metalikoen sektorean (% 13).

Uretara egindako isurketei dagokienez, sektore metalurgikoko enpresek eta elikadura-sektorekoek egin dituzte hobekuntza gehienak (% 17 bi kasuetan). Ontzi eta bilgarrien hondakinetan egindako hobekuntzen kasuan, sektore kimikoko enpresak nabarmendu behar dira (% 7), eta zarataren arloko hobekuntzetan sektore metalurgikoko enpresak (% 9). Halaber, sektore metalurgikoko enpresek energia-kontsumoaren arloan egindako hobekuntzek batezbesteko globala gainditzen dute (% 7).

Azkenik, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresek batezbesteko globala gainditzen dute hondakin arriskutsuen arloan egindako hobekuntzengatik (% 42), uretara egindako isurketen arloko hobekuntzengatik (% 41) eta energia-kontsumoaren arloko hobekuntzengatik (% 18).




18. grafikoa: Enpresen ustez, ingurumenaren ikuspegitik gehien hobetu dituzten arloak, industria-sektoreka (%).

6.3. ALDAKETA ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Aztertutako enpresen arabera, hauek dira ingurumenean hobekuntzak sortzen dituzten aldaketan bi faktore eragile nagusiak: legeria betetzea/segurtasun juridikoa (% 22) eta enpresen kontzientziazioa ingurumenaren gainean (% 19). Beraz, faktore horietako bat kanpoko faktore batekin lotuta dago (legeria) eta bestea enpresa barneko jarrerarekin.

“ Bi faktore nagusik bultzatzen dituzte enpresak ingurumen-hobekuntzako neurriak hartzera: alde batetik, legeria bete beharrak (% 22), eta, bestetik, gai horrekiko kontzientziak (% 19) ”



19. grafikoa: Enpresak ingurumen-hobekuntzak ekarri dituzten aldaketak egitera bultzatu dituzten faktoreak (%).


Gainerako faktore eragileek askoz ere ehuneko txikiagoak dituzte. Horien artean, hauek azpimarratu behar dira: kostuen murrizketa, enpresak bultzatutako etengabeko hobekuntzaren politika eta hondakinen murrizketa. Faktore horietako bakoitza enpresen % 5-7k aipatu du.

Ia sektore guztietan, legeria betetzea eta segurtasun juridikoa dira enpresek aipatutako ingurumen-hobekuntzen faktore eragile nagusiak. Sektore horien artean, sektore kimikoa eta metalurgikoa nabarmentzen dira (% 35 kasu bakoitzean), baita makina eta ekipamenduen sektorea ere (% 28).

Enpresak ingurumenaren gainean duen kontzientzia bigarren faktore eragiletzat dute sektore guztietan. Batez ere, sektore metalurgikoko enpresek (% 27) eta sektore kimikokoek (% 26) aipatzen dute faktore hori. Produktu metalikoen sektorean, berriz, garrantzi bera ematen diote faktore horri eta legeria betetzeko faktoreari (% 19).

Bestalde, batez ere, sektore kimikoko enpresek ematen diote garrantzia hondakinen murrizketari aldaketarako faktore eragile gisa (% 14). Hobekuntza horietatik eratorritako kostu-murrizketa, berriz, enpresa kimikokoek (% 16) eta enpresa metalurgikokoek (% 12) aipatzen dute.

IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen artean, azken bi urteetan egindako ingurumen-hobekuntzetarako faktore eragiletzat ingurumenaren gaineko kontzientzia aipatzen dute gehienek (% 45). Horien ondoren, beste enpresa batzuek legeria betetzea eta segurtasun juridikoa aipatzen dute (% 34). Ingurumen-hobekuntzetatik eratorritako kostu-murrizketen garrantzia ere (% 18) batezbesteko orokorra baino askoz ere handiagoa da enpresa horietan. Beraz, inpaktu handiena eragiten duten enpresetan eta ingurumenaren arloko araudi zorrotzera dutenetan, enpresa-interesarekin lotutako barne-faktoreak (ingurumen-kontzientzia, kostu-murrizketa) dira ingurumen-hobekuntzen bultzatzaile nagusiak.



20. grafikoa: Enpresak ingurumen-hobekuntzak egitera bultzatu dituzten faktoreak industria-sektoreka (%).

7. Ingurumenari buruzko informazioa eta ezagutza

7.1. INGURUMENARI BURUZKO "PRAKTIKA ONENEN" ETA TEKNOLOGIEN EZAGUTZA

Enpresa gehienek (10etik 6) uste dute oso ongi ezagutzen dituztela ingurumenaren arloko praktika onenak eta teknologiak.


Sektorez sektore aztertuta, desberdintasun handiak daude arlo horretan. Sektore kimikoan, adibidez, ezagutza globala batezbestekoa baino askoz ere handiagoa da (% 74). Sektore metalurgikoan, berriz, batezbestekoa baino pixka bat handiagoa da (% 62). Inpaktu-ahalmen handiena duten sektoreetan ere (kimikoa eta metalurgikoa), ezagutza-maila batezbestekoaren gainetik dago. Eta IPPC enpresa gehienek ere (ia 10etik 8) baliabide horiek ezagutzen dituzte.

Bestalde, praktika eta teknologia horiek gutxien ezagutzen dituzten enpresak makina eta ekipamenduen sektorekoak (% 47) eta elikadura-sektorekoak (% 52) dira.

Datuen bilakaera aztertuta, enpresek praktika onenen eta teknologien gainean duten ezagutza etengabe hazten joan dela ikusten da.

“ Azken urteetan etengabe hazten joan da ingurumenaren arloko “praktika onenak” eta teknologiak ezagutzen dituzten enpresen ehunekoa (ia % 60 gaur egun) ”

Horrek erakusten du Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sarean zabaltzen ari dela ingurumen-inpaktua murrizteko bitartekoei buruzko ezagutza. Horren atzean egon daiteke, batetik, enpresen interesa edo, bestetik, praktika eta teknologia horiek bultzatzen ari diren beste eragile batzuen itzala.




21. grafikoa: Ingurumenari buruzko "praktika onenak" eta teknologiak zeintzuk diren badakitela dioten enpresak, industria-sektoreka (%).

Azkenik, datuetan ikusten denez, enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan (langile-kopuru handiagoa), handiagoa da ingurumenerako praktika onenak eta teknologiak ezagutzen dituzten enpresen ehunekoa. Ingurumen-ziurtagiria duten enpresetan ere handiagoa da ehuneko hori.

7.2. INGURUMEN-ORIENTABIDEAREN ERAGILE NAGUSIAK

Ingurumenari buruzko informazio espezializatuaren iturriei buruz galdetuta, enpresek aholkularitzak (% 40) eta IHOBE (% 31) aipatzen dituzte. Gutxiago aipatzen dituzte enpresa-elkartek eta Eusko Jaurlaritza (% 15 eta % 11 hurrenez hurren), ingurumenari buruzko informazio-erreferente gisa.



22. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek ingurumenari buruz informatzeko erabiltzen dituzten (edo erabiliko lituzketen) iturri nagusiak (%).

Orain arte izandako bilakaerari dagokionez, aholkularitzek eta IHOBek gero eta pisu handiagoa dute Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen ingurumenaren arloko informazio-erreferente gisa. Enpresa-elkartek lehengo egoera berean daude, eta Eusko Jaurlaritzak ingurumenari buruzko informazio-erreferente gisa zuen pisua galdu du.


Azpmarratu behar da 50 langiletik gorako enpresen erdiak baino gehiagok IHOBE aipatzen dutela ingurumenaren arloko informaziorako eta aholkularitzarako erreferente nagusien artean: 51-100 langileko enpresen % 57k eta 101-500 langileko enpresen % 52k.

7.3. IHOBE-ren EZAGUTZA

Datuen arabera, enpresen ehuneko handi batek ezagutzen du IHOBE Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa (zehazki, 10 enpresetatik 7k hori adierazi dute).

Datuen bilakaeraren arabera, IHOBEren ezagutza-maila egonkortu egin da, eta 2002ko balioetara itzuli gara.

Sektore guztietako enpresen erdiak baino gehiagok IHOBE ezagutzen duten arren, ezagutza-maila desberdina da sektore batetik bestera. Ingurumen-inpaktua eragiteko ahalmen handiena duten sektoreek ezagutzen dute gehien IHOBE: sektore kimikoak (% 95) eta metalurgikoak (% 84). Halaber, IHOBEren ezagutzari dagokionez, batezbesteko globalaren gainetik dago makina eta ekipamenduen sektorea (% 74). Bestalde, hauek dira IHOBE gutxien ezagutzen duten sektoreak: elektrikoa (% 60) eta elikadura-sektorea (% 51).



23. grafikoa: IHOBE Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren ezagutza, industria-sektoreka (%).

IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresei dagokionez, ia denek ezagutzen dute (% 99).


Bestalde, enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan (langile-kopurua kontuan hartuta), handiago da IHOBE ezagutzen duten enpresen kopurua ere. Hala, 10-50 langileko enpresen % 65ek ezagutzen dute, 51-100 langileko enpresetan % 84k eta 101-500 langileko enpresetan % 96k. Halaber, enpresaren tamaina eta antolaketa-egitura handiagoa izateak ezagutza hori errazten du.

Azkenik, ingurumen-ziurtagirien bat duten enpresa ia guztiek ezagutzen dute IHOBE.

“ Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa gehienek (% 71) ezagutzen dute IHOBE ”

7.4. IHOBE-K ENPRESAREN HOBKUNTZAN EGITEN DUEN EKARPENARI BURUZKO BALORAZIOA

Oro har, aztertutako enpresen herenak baina gehixeagok (% 35) uste du IHOBEk asko lagundu diola enpresaren hobekuntzari.



24. grafikoa: IHOBEren laguntzak enpresa hobetzen lagundu duela uste duten enpresak, industria-sektoreka (%).

Sektoreka aztertuta, ingurumen-inpaktua sortzeko ahalmen handiena duten bi sektoretan baloratzen dute gehien IHOBEEK egindako ekarpena: kimikoan eta metalurgikoan (% 69 eta % 59 hurrenez hurren). Sektore elektrikoan, makina eta ekipamenduen sektorean eta produktu metalikoen sektorean % 28k eta % 30ek egiten dute balorazio hori, eta IHOBEEK egindako ekarpenaren balorazioak elikadura-sektoreko enpresetan du ehuneko txikiena (% 17)

Bestalde, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresak IHOBEEKin elkarlanean aritzen direla ikusten da, enpresa horien % 91k azpimarratu baitu IHOBEEK enpresari emandako laguntzaren garrantzia.


“ Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen % 35en arabera, IHOBEEK asko lagundu du enpresaren hobekuntzan, eta % 25en arabera, IHOBEEKin laguntzak ingurumen-hobekuntza jakin bat ekarri du ”





Bestalde, enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan (langile kopuruaren arabera), handiagoa da IHOBEn laguntza positiboki baloratzen duten enpresen ehunekoa. Hala, bereziki 50 langiletik gorako enpresek baloratzen dute laguntza hori. Beraz, horrek adierazten du IHOBEn zerbitzuak tamaina ertain eta handietako enpresen ingurumen-beharretara egokitzen direla ondoen.

Aztertutako lau enpresetatik batek uste du IHOBek emandako laguntzak ingurumen-hobekuntza jakin bat ekarri duela. Alegia, Euskal Autonomia Erkdiegoko industria-enpresen % 25ek adierazi du, IHOBE ezagutzeaz haratago, sozietatearen laguntzak ondorio praktiko eta zehatza izan duela enpresaren ingurumen-portaeran.



25. grafikoa: IHOBEn laguntzak enpresari ingurumen-hobekuntzaren bat ekarri diola uste duten enpresak, industria-sektoreka.

Sektorez sektore aztertuta, inpaktu-ahalmen handiena duten enpresek aipatzen dituzte gehien IHOBEn laguntzari esker lortutako ingurumen-hobekuntza zehatzak: batez ere, industria kimikoak (sektore enpresen % 50). Enpresa metalurgikoek, berriz, gutxiago aipatzen dituzte (% 31), eta produktu metalikoen sektoreko ehunekoa batezbestekoaren berdina da (% 25). IHOBEn laguntzari esker hobekuntza zehatzak egin dituzten enpresen ehunekoa txikiagoa da sektore hauetan: elektrikoa, makina eta ekipamenduen sektorea (% 20 bi kasuetan) eta, bereziki, elikadura-sektorean (% 13).

IHOBEk inpaktu-ahalmen handiena duten enpresei laguntzeko duen erabilgarritasuna IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen kasuan nabaritzen da gehien. Hala, enpresa horietatik % 43k diote ingurumen-hobekuntza zehatzak egin dituztela IHOBEn laguntzari esker.

Azkenik, enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan (langile-kopurua kontuan hartuta), enpresa gehiagok adierazten dute IHOBEn laguntzari esker ingurumen-hobekuntza jakinen bat lortu dutela. Beraz, horrek erakusten du enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, IHOBEn laguntza praktikoagoa eta funtzionalagoa dela.

8. Ondorioak

Azken kapituluan aztertutako informazioa oinarri gisa hartuta, laburbilduz, hauek dira 2006ko Industria Ekobarometroaren ondorio nagusiak.

1 **Ikuspegi kuantitatibotik, oraindik ere industria-enpresen gutxiengoak (% 5) aipatzen du ingurumen-aldagaia enpresa-errentagarritasuna lortzeko hiru aldagai garrantzitsuenen artean.** Beste aldagai batzuei (produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea, ondo saltzea, produktibitatea, lehengaien kostua...) ematen zaien garrantziak, itxuraz, adierazten du gaur egungo testuinguru ekonomiko globalean errentagarritasuna lortzea konplexuagoa dela. Ondorioz, enpresek beste alderdi batzuei ematen diete lehentasuna. Hauek dira ingurumena errentagarritasunerako oinarritzko aldagaitzat duten sektore nagusiak: sektore kimikoa (% 21) eta IPPC enpresen taldea (% 17). Datu horrek zera adierazten du: ingurumenean inpaktu handiagoa eragiteko ahalmena duten enpresek eta ingurumenaren arloko legeak gehien garatzen dituztenek ematen diete garrantzi handiena ingurumenari enpresako errentagarritasunaren baldintzatzaile gisa. Bestalde, makina eta ekipamenduen sektoreko, sektore elektrikoko eta produktu metalikoen sektoreko enpresek aipatzen dute gutxien ingurumen-aldagaia errentagarritasunerako oinarritzko faktoreen artean (% 2 eta % 4 artean).

2 **Enpresa gehienek (ia 10etik 6) uste dute beren jarduerak inpaktu handia eragiten duela ingurumenean.** Sektore kimikoak eta metalurgikoak dituzte ehuneko handienak (% 73 eta % 71 hurrenez hurren). IPPC enpresen taldea, berriz, % 83ra iristen da. Bestalde, elikadura-sektoreko eta produktu metalikoen sektoreko ehunekoak txikiagoak dira (% 54 eta % 57). Tamaina txikiko enpresek (50 langiletik beherakoak) eta ingurumen-ziurtagiririk edo ingurumena kudeatzeko berariazko giza balia biderik ez dutenek dute ingurumen-inpaktu txikiena egitearen pertzepzioa. Horrek adierazten du, a priori, antolaketa-egitura txikiagoa duten enpresek ingurumenaren arloko sentsibilizazio eta konpromiso handiagoa izateko, aurrez beste kudeaketa-eremu batzuk aseta eduki behar dituztela. Hala, merkatuko kondizioak gogortzea edo une jakin bateko egoera negatiboagoa izatea nahikoa izan daiteke industria-enpresen talde handi horren pertzepzioa –eragiten duten ingurumen-inpaktuari buruzkoa– aldatzeko.

3 Ingurumena errentagarritasunerako oinarritzko faktorea ez izateak ez du esan nahi garrantzirik ez duenik. Hala, lehenengo aldiz, **hazi egin da inpaktua murrizteko neurriek onura ekonomikoak ekar ditzaketela uste duten enpresen ehunekoa (% 31).** Ingurumen-inpaktua murrizteak ekar ditzakeen onura ekonomikoek erakarrirako enpresa gehienak makina eta ekipamenduen sektorekoak dira (% 35). IPPC enpresetan ere ehunekoa oso handia da, eta ia enpresen erdiek adierazi dute inpaktua murriztea eta onura ekonomikoak lortzea lotuta daudela. Bestalde, elikadura-sektoreko eta sektore metalurgikoko enpresek lotzen dituzte gutxien bi faktore horiek (% 24).

4 **Ingurumenaren arloko lege-esparruak enpresen portaera baldintzatzen du. Enpresen ia % 60k adierazi dute eragiten dieten ingurumen-legeria ezagutzen dutela.** Batez ere, inpaktu gehien eragin dezaketen sektoreetako enpresek ezagutzen dute araudia: sektore kimikoan % 81ek eta sektore metalurgikoan eta produktu metalikoen sektorean % 60k. IPPC enpresen ehunekoak % 78koa da arlo horretan. Bestalde, makina eta ekipamenduen sektoreak eta elikadura-sektoreak ezagutzen dute gutxien ingurumen-legeria (% 39 eta % 41 hurrenez hurren). **Enpresen ehuneko handi batek ez daki bere sektoreko enpresek zenbateraino betetzen duten ingurumen-legeria (% 31).** Oro har, enpresa gehienek uste dute enpresen erdiak baino gutxiagok betetzen duela ingurumen-araudia. Batez ere, ingurumen-kalitatea eta -hobekuntza lortzeko helburua duten enpresen segmentuak –ziurtagiria dutenak edo ingurumenaren arloko arduraduna dutenak– du pertzepzio hori.

5 Enpresa gehien arabera (ia % 70), ingurumen-jarduerak ez dituzte egiten soilik legeria betetzeko. Ingurumen-jarduerak legea betetzeko bakarrik egiten ez dituzten enpresen artean, sektore metalurgikokoak eta kimikokoak nabarmentzen dira (% 83 eta % 76 hurrenez hurren). IPPC enpresen kasuan, % 83k dio hori. Hortaz, batez ere, ingurumen-inpaktua eragiteko ahalmen handiena duten enpresek adierazten dute ingurumen-portaera legea betetzera ez mugatzeko joera, eta, beraz, badirudi portaera hori enpresaren barne-interesek ere bultzatzen dutela. Edozein modutan, legeria oinarritzko faktore bultzatzailea da. Hala, enpresen % 22k adierazi dute araudia dela azken bi urteetan egindako **ingurumen-hobekuntzen indar eragile nagusia**. Horren ondoren, enpresen % 19ren arabera, **ingurumenaren gaineko kontzientziazioa** izan da faktore bultzatzaile nagusia. Bestalde, hobekuntzen faktore bultzatzaile gisa ingurumen-kontzientziazioa eta kostuen murrizketa aipatzen dituzten IPPC enpresek batezbesteko globala gainditzen dute. Horrek adierazten du ingurumen-inpaktua eragiteko ahalmen handiagoa duten sektoreetan eta araudi garatuagoa dutenetan, ingurumen-aldagaia gehiago barneratu dela, eta enpresaren barruko arloekin lotu dela.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da hau kontuan hartzea: araudi bidezko kanpoko bultzada enpresan ondo ulertzeko eta aplikatzeko, **barne-kontzientziaziorako prozesu paralelo bat behar da, eta prozesu horrek sentsibilizazioan oinarrituta egon behar du**, gaiaren balio ekonomikoa, ingurumenaren arlokoa eta soziala barneratu ahal izateko.

6 Hondakin ez-arriskutsuak eta arriskutsuak dira industria-enpresek gehien aipatzen dituzten ingurumen-inpaktuak (% 46 eta % 43 hurrenez hurren). Orain arteko bilakaerari dagozkionez, hondakin ez-arriskutsuak sortzen dituztela dioten enpresen ehunekoak asko hazi da. Hondakin arriskutsuek, berriz, lehengo maila berean jarraitzen dute, baita airera egindako emisioen pertzepzioak ere (% 27).

Bi arazo horietako bat edo biak nabarmentzen dituzte sektore guztietan. Hala, hondakin ez-arriskutsuak arazo nagusizat hartzen dituzte sektore elektrikoak (% 65), metalurgikoak (% 52) eta elikadura-sektoreak (% 48). Bestalde, hondakin arriskutsuak arazo nagusizat hartzen dituzte sektore kimikoan (% 55), makina eta ekipamenduen sektorean (% 49) eta produktu metalikoen sektorean (% 46). IPPC enpresen berezitasuna adierazten du datu honek: airera egindako emisioak (% 73), hondakin arriskutsuak (% 60) eta uretara egindako isurketak (% 57) dira enpresa horiek gehien aipatzen dituzten ingurumen-inpaktuak.

7 Ingurumen-ziurtagirien bat duten enpresen ehunekoaren goranzko joera egiaztatu da, eta % 23ra iritsi dira. Dena den, desberdintasun handiak daude sektore batetik bestera: portzioan, ziurtagiria duten enpresa gehienak sektore kimikoan (% 52) eta metalurgikoan (% 36) daude. Ingurumen-ziurtagiria duten enpresa-kopuru txikiena, berriz, makina eta ekipamenduen sektorean eta elikadura-sektorean dago (% 13 eta % 18 hurrenez hurren). IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresei dagokienez, % 71k ingurumen-ziurtagiria dute. Datu horrek adierazten du enpresa horientzat ziurtagiria izateak zer garrantzi duen. Enpresen arabera, hauek dira **ingurumen-ziurtagiria izateak eragiten dituen onura nagusiak**: lehenik, **legeria betetzea eta horren ondoriozko segurtasun juridikoa** eta, bigarrenik, ingurumen-inpaktua murriztea.

8 Galdetutako **10 enpresetatik ia 6k adierazi dute** ingurumena hobetzeko aldaketaren bat egin dutela azken bi urteetan. Batez ere, sektore kimikoan (% 79) eta metalurgikoan (% 72) egin dituzte aldaketa horiek, alegia, inpaktu handiena eragiteko ahalmena duten sektoreetan eta araudi zorrotzagoa dutenetan. Bestalde, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen % 94k egin dituzte ingurumen-hobekuntzarako aldaketak. Enpresa gehienek arabera, egindako aldaketen bidez, batez ere, hondakin arriskutsuen arloan lortu dira ingurumen-hobekuntzak (% 25), ondoren, hondakin ez-arriskutsuen arloan (% 18) eta, azkenik, airera egindako emisioen eta uretara egindako isurketen arloan (% 11 eta % 10 hurrenez hurren).

9 **Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresa gehienek** –zehazki % 71k– **ezagutzen dute IHOBEn Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa**. Sektoreka aztertuta, ingurumen-inpaktua sortzeko ahalmen handiena duten sektoreetan ezagutzen dute gehien IHOBEn egindako ekarpena: kimikoan eta metalurgikoan (% 95 eta % 84 hurrenez hurren). IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen % 99k ezagutzen dute IHOBEn. Datu horrek are gehiago indartzen du esandakoa.

10 **Aztertutako enpresen % 35ek uste dute IHOBEn asko lagundu duela enpresaren hobekuntzan**. Batez ere, balorazio positibo hori egiten dute sektore kimikoko enpresen (% 69) eta sektore metalurgikokoek (% 59). Dena den, guztien gainera, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen % 91k laguntza dute IHOBEn. Bestalde, enpresen % 25ek uste dute IHOBEn emandako laguntzari esker, **ingurumen-hobekuntza jakinen bat egin ahal izan dela**. Kasu horretan ere, batez ere, sektore kimikoko eta metalurgikoko enpresen % 50ek uste dute IHOBEn laguntza praktikoa izan dela eta, laguntza horri esker, ingurumen-hobekuntza jakinen bat egin ahal izan dela (% 50 eta % 31 hurrenez hurren). Halaber, IPPC araudiaren eraginpean dauden enpresen % 43k uste dute enpresen % 43k laguntzaren funtzionalitatea (% 43).